BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4169

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 19koa, Energia, Meategi eta Industria Administrazioko zuzendariarena, mahats-muztioetarako errefaktometro automatikoak eta kalibragailu akustikoak eta sonometroak, termometroak eta tenperatura erregistratzeko gailuak (I eta II mota) direlakoen egiaztapen metrologikoak burutzeko erakunde baimendun Tradelab S.L. izendatzeko dena.

Erref.: 01-OV-1015

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko uztailaren 17an, Tradelab S.L. enpresaren izenean eta ordez (Huesca kaleko 71eeko behealdeak, Logroño), José Giménez Navarro jaunak honako honetarako erakunde baimendu izendatzea eskatu zuen: mahats-muztioetarako errefaktometro automatikoak eta kalibragailu akustikoak eta sonometroak, termometroak eta tenperatura erregistratzeko gailuak (I eta II mota) direlakoen egiaztapen metrologikoak burutzeko erakunde baimendun, alegia.

Bigarrena.– Erakunde eskatzaileak, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakunde gisa izendatzeko, honako baldintzak bete behar ditu: egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak izendatzeko azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentaraua argitaratu duen Industriako Idazkaritza Nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean ezarritako baldintzak, alegia. Hartarako, OC-I/283 Egiaztapeen Agiria, ENACek emandakoa, eta zeinari 2011-05-31ko Eranskin Teknikoa (2. berrikuspena) erantsi zitzaion, eta bertan honako gailu hauek jasotzen dira:

– Laborategi iraunkorrean, tenperatura erregegistratzaileak eta termometroak -30 ºCtik +70 ºCera, 0,5, 1 eta 2 mota, eta In Situ 0,5, 1 eta 2 mota -30 ºCtik +70 ºCera.

– Mahats-muztioetarako errefaktometro automatikoak (I eta II mota). 10,0-30,0 ºBrix.

– Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta dosimetroak.

Hori horrela, eskatutako izendapena behin betiko egitea dagokio.

Espediente honi ebazpena emateko, beharrezko izango da honako hauek kontuan hartzea:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia-kontrola burutzeko bitartekoak ezarri zituen 38/2001 Dekretuaren 11. artikuluak zehazten duenaren arabera, industria alorrean eskumena duen organoak egiaztapen metrologikoa egiten duten erakundeak gaitu ahal izango ditu, konponketa nahiz aldaketen osteko eta aldizkako egiaztapenak burutzeko.

2.– Energia, Meategi eta Industria Administrazioko zuzendariak du ebazpen hau emateko eskumena, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Neurketa-tresnen kontrol metrologikoko oinarrizko legeria arautzailea Metrologiako 3/1985 Legean eratua dago; lege hori hauek aldatu zuten: ekainaren 28ko 1296/1986 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30eko 13/1996 Legeak eta abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, uztailaren

21eko 889/2006 Errege Dekretuak, pisatzeko tresna ez-automatikoetan Estatuak egin beharreko metrologia-kontrola arautzekoak eta aipatutako 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenak.

4.– Azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Agindua, zeinarekin honako hau arautzen baita: tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura erregistragailu eta termometroen metrologia-kontrola.

1998ko abenduaren 16ko agindua, soinu entzungarriaren mailak neurtzera bideratutako tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

6.– ITC/2845/2007 Aginduak, irailaren 25ekoak, tresnak jardunean dauden fasean Estatuak soinu entzungarria neurtzeko tresnen gainean eta kalibragailu akustikoen gainean gauzatu beharreko kontrol metrologikoa arautzen du, eta Agindu horren IV. eta V. Eranskinetan, entseguak, entseguak gauzatzeko modua eta fase eta tresna bakoitzerako baimendutako gehieneko erroreak zehazten dira.

ITC/3077/2007 Agindua, urriaren 17koa, mahats-muztioaren, muztio kontzentratuaren eta muztio kontzentratu zuzenduaren azukre-edukia zehazteko tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

Aurreko legezko arauak eta ezarri beharreko gainerako xedapen orokorrak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Jarraian zehaztukoen egiaztapen metrologikoak egiteko erakunde baimendun izendatzea Tradelab S.L. enpresa (Huesca kaleko 71.eko behealdeak, Logroño):

– Laborategi iraunkorrean, tenperatura erregegistratzaileak eta termometroak -30 ºCtik +70 ºCera, 0,5, 1 eta 2 mota, eta In Situ 0,5, 1 eta 2 mota -30 ºCtik +70 ºCera.

– Mahats-muztioetarako errefaktometro automatikoak (I eta II mota). 10,0-30,0 ºBrix.

– Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta dosimetroak.

Izendapen horren irismena ENACek emandako egiaztapenean eta OC-I/283 Eranskin Teknikoan (2. berrikuspena) bildutako tresnetan oinarritzen da.

2.– Ematen den baimenari, honako baldintza hauek ezartzea:

– Euskal Autonomia Erkidegoko tresnetan jardungo du.

– Tresnak probak gainditzen baditu, egiaztatu izanaren etiketa erantsiko dio erakundeak. Halaber, kontrol metrologikoko egiaztagiri bat emango da, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ezartzen duenaren araberakoa.

Gainditzen ez baditu, zerbitzurako desgaikuntza adierazten duen etiketa gorria itsatsiko dio. Hori guztia, uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuaren I. eranskinaren arabera, eta egiaztapena gainditu ez duen tresnaren berri emango zaio berehala, tresna dagoen lekuko lurralde ordezkaritzari.

– Dagokion egiaztapena egin ondoren, Tradelab S.L. sozietateak tresna zigilatuko du zigiluen bitartez edo, ahal bada eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsaskor auto-suntsigarrien bitartez. Ez dira inolaz ere berunezko zigiluak edo antzekoak erabiliko; zigiluok jardueraren azalpen-girorako egokiak eta iraunkorrak izan beharko dute. Espainiako Metrologia Zentroaren (CEM)

eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza honen gida eta gomendioei jarraitu beharko zaie.

Edonola ere, zigiluek inskripzio hauek izango dituzte:

a) Zigilu normala:

AURREALDEA



ATZEALDEA



b) Zigilu enbutitua:



c) Plastikozko zigilua:

AURREALDEA



ATZEALDEA



XX egiaztatzea egiten den urtearen azken bi digituei dagokio.

3.– Tradelab S.L. enpresak, baimendutako entseguei dagozkien tarifen berri urtero emango dio zuzendaritza honi.

4.– EAEko erakunde baimenduekin erregistratzeko, zenbaki hau ematen zaio Tradelab S.L. sozietateari: 01-OV-1015.

5.– Tradelab S.L. erakundea hauetan xedatzen duenaren mende egongo da uneoro: uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretua, neurketa-tresnei dagokienez Estatutuko kontrol metrologikoa

arautzen duena; Izendapen honetako oinarri juridikoetan adierazitako aginduak, 2007ko azaroaren 29ko Ebazpena, eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak ezartzen duen bestelako ezein xedapen.

6.– Izendapen hori 2015eko abenduaren 31n azkenduko da, eta interesdunak beste izendapen bat eskatu ahal izango du data hori heldu aurretik; betiere; 2007/11/29ko Ebazpenean, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak izendatzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

7.– Izendatutako erakundearen jardunen gainean ikuskatu, esku hartu eta kontrolatzeko eskumena Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio. Horretaz gain, baimen honen eragile diren betekizunei eusten zaiela egiaztatzeko ikuskapenak gauzatu ahal izango dira.

8.– Ebazpen hau eman eta gero, aurkeztutako agirietan egiaztatutako egoera aldatzen bada Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark baimena berretsiko du edo deuseztatu ahal izango du.

9.– Dena den, bateraezintasuna eta independentzia egongo da kontrol metrologikoa jasan behar duten neurketa-tresnen ekoizpen-, merkaturatze- eta konpontze-jarduerekiko, zerbitzuak ematea barne, baita Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudiaren araberako jarduerak ere.

10.– Baimen hau deuseztatzeko arrazoi izango dira, indarreko legerian aurreikusitakoez gain, bertan ezarritako baldintzak ez betetzea, akreditazioa etetea edo errebokatzea, baita hura eman zen orduko inguruabarrak funtsean aldatzea ere.

11.– Izendapen hau ez berritzeko arrazoi izan daitezke arau- eta administrazio-irregulartasunak, baita Egiaztatze Metrologikoko Erakunde Baimenduak zehapenik egin izana ere.

12.– Urtero eta urtearen lehenengo hiruhilekoan, Egiaztatze Metrologikoko Erakunde Baimenduak memoria bat helaraziko die Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari, zeinetan burututako jarduerak eta jazo diren gertaerak jasoko baitira. Halaber, sei hilabeterik behin, lurralde bakoitzean egindako egiaztapenen berri emango zaio dagokion lurralde-ordezkaritzari.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 19a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.